

LOMCEri EZ!

Euskal Herrian gure hezkuntza!

ELArentzat hezkuntza erreforma berria Euskal Herriko erakundeek eskuduntzetan eskusartze berri bat da, ez die euskal hezkuntza sistemaren beharrei erantzuten eta interes ekonomiko eta ideologikoen baitan egiten da.

Horregatik, estatu espainiarreko gobernuari eskatzen dio hezkuntzaren erreformarako lege aurreproiektua erretira dezala. Modu berean, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari eta alderdi politikoei eskatzen die zentralizazio ahalegin eta hezkuntza eraso berri honi aurre egin diezaiotela eta Gasteiz eta Iruñako gobernuak duten erabateko hezkuntza eskuduntza defenda eta aldarrika dezatela.

Azkenik, langile, ikasle, guraso, hezkuntza eragile eta jendarte osoari dei egiten diogu hezkuntza erreforma berzentralizatzaile eta atzerakoi hau Euskal Herriko ikastetxeetan sar ez dadin mobilizatzeraz eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza guk erabakitzearen alde lan egitera.

Helburu ideologikoei eta zentralizazio asmoari erantzuten dion parte-hartzerik gabeko prozedura antidemokratikoa

ELArentzat guztiz onarkaitza eta **antidemokratikoa** da honelako garrantzia eta eragina izango duen legea modu ezkutuan, eztabaidarik gabe eta inolako adostasunik gabe inposatu nahi izatea. Oso larria da, Wert ministroak erreforma publikoki aurkeztu izana hezkuntza eragile eta sindikatuoi inolako parte-hartze errealerako biderik eman gabe eta proposaturiko erreforma testua bera ere gurekin elkarbanatu gabe. Azken hilabetetan gertatzen ari diren bilera eta elkarrizketak oinarrizko puntuetan aldaketarik onartzen ez dituzten itxurakeria direlakoan gaude. Izan ere, ministroak bere alderdiak duen gehiengoaz baliaturik, behin baino gehiagotan adierazi du akordioekin ala gabe hezkuntza erreforma aurrera aterako duela.

Proposaturiko azken testua aztertu ondoren, ELAren ustez, argi dago erreforma honekin Espainiako Gobernuaren helburua hezkuntzaren zentralizazioa areagotzea dela, hezkuntza eta ikasleak merkatuen beharren baitan moldatzea eta adoktrinamendu ideologikoa inposatzea.

Bestalde, ELA beldur da, Espainiako Gobernuak azken urteetan inposatu dituen murrizketak kontutan izanik, Madrilgo gobernuak erreforma berri honi buruz zabaltzen duen informazio eskasean aipatu bai baina garatzen ez diren hainbat neurri baliaturik hezkuntza inbertsioan

murritzeta gogorak inposatu nahiko dituen (plantillak mugatuz, ikasgaiak kenduz, langileen funtzioak eta desplazamendu aukerak handituz, plazak amortizatuz, gelako ikasle kopurua handituz, etab.).

Hezkuntza egoeraren diagnostiko eta ebaluazio falta

Lege aurreproiektuak **hezkuntzaren egoeraren eta Estatuan dauden desberdintasunen inguruko gutxieneko analisi baten falta larria** du. Seriotasun minimo bateko diagnostikorik egin gabe hezkuntzaren oinarritzko helburuei beraiei, hezkuntza ibilbide pertsonalei eta autonomia erkidegoen, ikastetxeen eta hezkuntza eragileen eskuduntzei modu larrian eragiten dieten aldaketak proposatzen dira.

Zentralizazioa eta eskuduntzei eraso berri bat

Gogoratu beharrean gaude bai Eusko Jaurlaritzak baita Nafarrokoa Gobernuak ere hezkuntza eskuduntza osoak dituztela, baina PP eta PSOEn gobernu ezberdinek azken hamarkada luzetan inposaturiko oinarritzko legeen bidez (LOGSE, LODE, LOE...) eskuduntza hauek erabat mugatzen joan direla.

Oraingo hau, gure **eskuduntzei eraso berri bat** da, izan ere, beste behin, oinarritzko lege bidez eskoletan landu beharreko oinarritzko eduki osoa, hau da, irakasgai ardatz denak, ebaluazio irizpide guztiak eta gainerako hainbat neurri Madrilatik inposatu nahi dizkigute (gogoratu beharrean gaude, egun, aurrez aipaturiko oinarritzko legeen bidez jada edukien %55 Espainiako Gobernuak inposatzen digu).

Euskarari, elebitasunari eta hizkuntza eskubideei eta normalizazioari eraso larria

Lege-aurreproiektuaren azken bertsioan, euskarak espezialitateko ikasgai trataera du, beti ere gaztelaniaren atzetik eta autonomia erkidego eta ikastetxeen aukeren baitan baita atzerriko hizkuntzen atzetik ere. Hau gutxi balitz, euskararik gabeko hezkuntza nahi duten familiei, aukera hori diru publikoz babesteko aukera ere zabaltzen da.

Zeresanik ez du, ELAren ustetan hau guztia oso larria dela, izan ere, modu honetan, hizkuntza murgiltze ereduak edo euskara irakas-hizkuntza duten hezkuntza ereduak arrisku bizian jartzen dira, azken urte luzeetan eman diren pausoak erabat atzera eginez, euskal jendarteak aukeratu duen bidea gutxietsiz, hizkuntza eskubideak urratuz eta benetako elebitasunari eta euskararen normalizazioari kolpe izugarria luzatuz.

Eskola porrota aitzakiatzat

“Kontraerreforma” berri hau inposatzeko Wert ministroak estatu mailako %26,5eko **eskola porrota** jartzen du **aitzakiatzat**. Baina ezkutatu egiten du **Euskadiko Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan**, murrizturiko eskuduntza hauei ahal izan diogun etekina ateraz eta hezkuntza eragileen eta langileen inplikazioaren bidez posible izan den eredu propioa garatuz, **errealitatea oso bestelakoa** dela. Besteak beste, eskola porrota, oraindik ere asko borrokatu eta hobetu behar den arren, %12,5 eta %17,9koa dela urrenez urren alegia.

Gauza bera gertatzen da erdi-mailako edo goi-mailako ikasketa titulua lortzen duen populazio tasarekin, zeinetan Hego Euskal Herriko batz-besteak Europakoa berdindu edo gainditzen duen.

Hezkuntza merkatuaren eta enpresen zerbitzura

Espainiako gobernuaren esanetan hezkuntza ekonomiaren eta enpresen beharretara moldatu behar da, “enpleagarritasuna” hobetzeko eta horren baitan aldatzen dira DBHko 4. ikasturtea eta hezkuntza ibilbideak, moldatu nahi da Lanbide Heziketa eta sortzen da “prestakuntza eta ikasketa kontratua”. ELAren ustetan onartezina da ekonomia bermoldatzeko eta enplegua sortzeko inolako neurririk ez bultzatzea edo kontrako norantzan doazen neurriak hartzea, eta honen aitzakiatan **hezkuntza merkatuaren eta enpresen zerbitzura jartzea**, hezkuntzaren helburu beharko luken pertsonaren eta jendartearen garapena guztiz perbertituz.

Hezkuntza garapen eta jarraipen pertsonalaren oztopatzea, profesionalen lanarekiko mesfidantza eta ikastetxeetako parte-hartze eta funtzionamendu demokratikoaren mugatzea.

14 urterekin ikasleak beraien heziketa ibilbidea erabakitzea behartzeak edo 15 urterekin Batxillergoa edo Lanbide Heziketara bideratzeak **garapen pertsonala, heziketa integrala eta aukera berdintasuna mugatzen du** “lehen” mailako eta “bigarren” mailako ikasleak sortzeko arriskua areagotuz. Ildo beretik doaz Lanbide Heziketan proposatzen diren aldaketak eta HLPP/PCPIetako moldaketak. Hezkuntzaren erabilera merkantilista onartezina da proposatzen dena.

8, 11, 15 eta 17 urterekin derrigorrezko azterketa orokorrak ipintzea eta “kanpotik” eginiko ebaluazioak ezartzea, garapen pertsonalerako eta ebaluazio pertsonalizatu aukerak mugatzea da eta **ikastetxe eta irakasleen lanarekiko muga eta mesfidantza handitzea**.

Atzerapauso nabaria da, **aukerako ikasgaien kopurua edota batxillergorako bideak Madrilgo gobernuaren irizpideen baitan murriztu** nahi izatea.

Larria da **ikastetxeetako Eskola Kontseiluen parte-hartze eta erabakitze ahalmena mugatzea eta zuzendaritzetan zentralizatzea**. Gainera zuzendaritzen aukeraketan autonomia erkidegoetako administrazioek ahalmena handitzen dute ikastetxeen kaltetan.

Modu berean, **hezkuntza proiektuak ikastetxea kokatzen deneko gizarte egoera eta ikasleen beharretara moldatzeko gaitasuna murrizten zaie zentroei**.

Euskal Herriko errealtate eta beharrei errespeturik ez

Are larriagoa gertatzen da intromisio eta inposaketa ahalegin hau **Hego Euskal Herriko errealtatea eta beharrak guztiz ezberdinak** direnean eta bai derrigorrezko hezkuntzan baita Lanbide Heziketan ere **errealtate eta behar ezberdin horiei erantzungo dien hezkuntza politika eta proiektuak garatzeko premia** dugunean.

Ildo berean, ELAri kezka handia sortzen dio, jada Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egin duten moduan, **atzerriko hizkuntzen ikasketaren aitzakiatan euskarari orduan kendu eta gaztelaniari ordu gehiago ematea** oinarritzko lege moduan inposatuko den. Beste behin

ere hezkuntza eskubideen aurka joanez, euskalduntzea eragotziz eta benetako elebitasuna oztopatuz.

Adoktrinamendu ideologikoa

Bestalde, aurrez esandako guztia kontutan izanik, ministroaren adierazpen publikoei erreparatuz, hainbat ikasgaietan eman diren aldaketak ikusirik eta ikasgaien edukiak curriculumean nola gauzatzen diren zain, beldur gara hezkuntza erreforma honek **PPri gustatzen ez zaizkion gizarte ikuspegiak ezabatzeko, balio atzerakoi eta merkantilistetan adoktrinatzeko eta estatuan dauden ezberdintasun nazionalak berdintzeko ahalegin** soila ez ote den.

Lege-aurreproiektua erretiratu eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bere-bereak dituzten hezkuntza eskuduntzen errespetu exijentzia

Honegatik guztiagatik, ELAk ulertzen du **lege aurreproiektu** honek ez duela **Euskal Herriko jendartearen, hezkuntza eragileen eta langileen inolako babesik** eta beraz **proposamena erretiratzea** eskatzen du.

Modu berean, kontutan izanik **Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eskuduntza osoak dituztela hezkuntzan, espainiar estatuko gobernuari exijitzen diogu Hego Euskal Herriko errealitatea errespetatu dezala eta bertako hezkuntza eragileek eta gizarteak nahi duten hezkuntza sistema erabakitzeke duten eskubidea.**

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta alderdi politikoei eraso honi aurre egiteko eskaera eta hezkuntza komunitateari eta jendarteari erreforma gure ikasgeletan sar ez dadin eta Euskal Herrian gure hezkuntza erabaki dezagun lan egitera deia

ELAk **Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari eta alderdi politikoei** eskatzen die **zentralizazio ahalegin eta hezkuntza eraso berri honi aurre egin diezaiotela** eta Gasteiz eta Iruñako gobernuak duten **erabateko hezkuntza eskuduntza defenda eta aldarrika dezatela.**

Eta azkenik, **langile, ikasle, guraso, hezkuntza eragile eta jendarte osoari** dei egiten diogu hezkuntza erreforma berzentralizatzaile eta atzerakoi hau Euskal Herriko **ikastetxeetan sar ez dadin mobilizatzera eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza guk erabakitzearen alde lan egitera.**

(2012ko abenduaren 3ko lege-aurreproiektu zirriborroaren gainean eginiko balorazioa)